

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea "Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 14. eranskinaren aldaketa**

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 28ko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion "Amurrioko Herri Musika Eskola" herri musika zerbitzuaren tasa arautzen duen udalaren 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 14. eranskinaren aldaketari.

Erabakia eta haren aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedientea aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerga ordenantzaren aldaketari buruzko behin-behineko erabakia behin betiko bihurtuko da, halaxe xedatzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan.

Amurrio, 2019ko apirilaren 1a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**